

Bake Kulturari eta Giza Eskubideei buruzko Euskal Herriko ADIERAZPENA

**UNESCO ETXEAREN OHOREZKO BAZKIDEEN
AHOLKU BATZORDEAREN
BIURTEKO II. TOPAKETAREN KARIETARA EGINA**

IRAILAREN 21A

Bilbo

TESTUINGURUA

UNESCO Etxearen Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeak, Zuzendaritza Batzordeak, Bazkideek eta Talde profesionalak interes biziz jarraitu ditugu nazioarteko gertaera garrantzitsu batzuk, baita horietako batzuetan parte hartu ere, eta ez genituzke aipatu gabe utzi nahi:

- *Atsegin handiz hartu dugu* Euskal Herriko Unibertsitatean Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eratu izana (2007).
- *Pozten gara* Ur baliabideak Ebaluatzeko Munduko Programaren II. Txostenean¹ (2006) euskal auzia sartu zelako.
- *Pozik hartu dugu* Adostasun Memorandumaren bidez Eusko Jaurlaritza ONUSIDA programarekin elkarlanean aritzea.
- *Pozik hartu dugu* UNESCOk Bizkaia Zubia Gizadiaren Ondare izendatu izana (2006), baita Ekain, Santimamiñe, Altxerri, Venta Laperra eta Arenatza I kobazuloak ondare horretan sartzeko prozedurak hasi izana ere.
- Oso baliagarritzat jotzen dugunez Erljioen eta kulturen arteko Elkarrizketa, *horren alde egiten dugu*; eta bereziki, bat egiten dugu 2005ean Bilbon egindako Erljioen arteko eta Kulturen

¹ UNESCO-WWAP (2006). *Ura, guztion ardura. Nazio Batuen Uraren Garapenari buruzko Munduko II, Txostena*. Zaragoza: Expoagua Zaragoza Estatu Sozietatea. <http://unesdoc.unesco.org/images/0014/001495/149519S.pdf>

arteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Biltzarreko² lanekin eta ondorioekin.

- *Pozik hartu ditugu* Nazio Batuen Erreformaren aurrerapen hasiberriak, eta Giza Eskubideen Batzorde berriari (Geneva, 2006) espero diren emaitzak izan ditzan opa diogu. Halaber, Nazio Batuen erreforma sakonarekin jarraitzea eskatzen dugu; erreforma horrek NBERen Kartan ezarritako herri ordezkariak erraztu behar du, eta nazioarteko instituzioak (MMA, MMF eta Munduko Bankua) barne hartu behar ditu.
- Zibilizazioen Aliantzaren³ gomendioen (2006) *alde egiten dugu*.
- 2006an Nazio Batuen Batzar Nagusiak bere gain hartutako Terrorismoaren kontrako Estrategia Globalaren⁴ *alde egiten dugu*.
- *Bat egiten dugu* Informazio Gizarteko Gailurraren⁵ (2005) ondorioekin.
- *Bat egiten dugu* UNESCOren Jakintzaren Gizarteranzko Txostenaren⁶ (2005) ondorioekin.
- Bakerako ezinbesteko baldintza den aldetik, *pozten gara* nazioarteko komunitateak ingurugiroaren auziari gogor heldu izanaz, Nazio Batuen Adituen Panelak (IPCC) egindako lanaz bereziki (2007)⁷.
- *Pozten gara* nazioarteko esparruan identitate kultural eta politikoak aitortu izanaz, 2005eko Kultur Adierazpenen Aniztasuna Babestu eta Sustatzeari buruzko Konbentzioa eta 2007ko Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen adierazpenak⁸ jakinarazten duten bezala.

2 Kulturen arteko eta Erligioen arteko Elkarrizketari buruzko Nazioarteko Biltzarra: "Erronka berriak bake grina duen munduan" (1. 2005. Bilbo) <http://www.icii-bilbao.org/comcenter.htm>

3 NAZIO BATUAK (2006). Zibilizazioen arteko Aliantza. Goi Mailako Taldearen Txostena. New York: Nazio Batuak. http://www.unaoc.org/repository/HLG_report_ESP.pdf

4 NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (2006). 60/288. Nazio Batuen terrorismoaren kontrako estrategia globala. <http://www.un.org/Depts/dhl/resguide/r60sp.htm>

5 WSIS (2005). Tuniseko konpromisoa. WSIS-05/TUNIS/DOC/7-S. <http://www.itu.int/wsis/docs2/tunis/off/7-es.html>

6 UNESCO (2005). Jakintzaren Gizarteerantz. UNESCOren Munduko Txostena. Paris: UNESCO Argitalpenak

7 Nazio Batuen Klima Aldaketako Adituen Gobernu arteko Paneleko Lan taldeak. (IPCC WG)

IPCC WG I (2007). Climate Change 2007 - The Physical Science Basis

Contribution of Working Group I to the Fourth Assessment Report of the IPCC

<http://ipcc-wg1.ucar.edu/wg1/wg1-report.html>

IPCC WG II (2007). Climate Change 2007: Impacts, Adaptation and Vulnerability. Contribution of Working Group II to the Fourth Assessment Report of the Intergovernmental Panel on Climate Change,

<http://www.ipcc-wg2.org/>

IPCC WG III (2007). Climate Change 2007 - Mitigation of Climate Change

Contribution of Working Group III to the Fourth Assessment Report of the IPCC

<http://www.mnp.nl/ipcc/index.html>

8 NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA. (2007) A/61/L.67. Herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena

http://www.ohchr.org/english/issues/indigenous/docs/draftdeclaration_sp.pdf

- Milurtekoko Garapen Helburuen Konpromisoen (2000-2015) erdigunean izanik, konpromisook erabat betetzea eskatzen dugu, eta Estatuak zein nazioarteko erakundeek zeregin honetan duten erantzukizuna *gogorarazten dugu*.

2006. urtean, gure herrian bake prozesuan eta elkarrizketan aurrera egiteko saiakera bizi izan dugu: “su-eten iraunkorra” eta Eusko Legebiltzarrak zein Espainiako Parlamentuak elkarrizketetan hastea onartu izana. Espainiako Gobernuak esan du indarkeriarik ez dagoenean hasiko dituela elkarrizketak, eta guk ekimen horren alde egin dugu, Eusko Legebiltzarreko eta Espainiako nahiz Europako parlamentuetako talde gehienek egin duten bezala; halaber, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak prozesuari babesa berehala eman izanaren alde ere egiten dugu. Horren ondoren, Aita Santuak, Europar Batasunak eta nazioarteko hainbat gobernutako, erakundetako zein gizarte zibileko buruzagi garrantzitsuk ere horren aldeko adierazpenak egin zituzten.

Zoritxarrez, joan den urteko abenduaren 30etik indarkeria itzuli egin da: egun hartan, Carlos Alonso Palate eta Diego Armando Estancio hil zituzten atentatu batean.

Egoera honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da gizarte zibila ez gogogabetzea; halaber, inoiz baino beharrezkoagoa da ez nekatzea, hala gertatzea ulergarria litzatekeen arren, eta ez axolagabe bihurtzea, tentagarria izan arren. Inoiz baino beharrezkoagoa da gizarte zibilak herritarren betebeharrak alde batera ez uztea, ezikusia ez egitea, bakea eraikitzeko eta adiskidetzea lortzeko ardura guztia klase politikoaren esku ez uztea, gizarte zibilari baitagokio zeregin horren zati garrantzitsu bat, eta zilegi da zeregin hori betetzeko exijitzea, ardura zati hori ez baita beste inoren esku uztekoa. Izan ere, euskal gizartearen erronka ez da soilik ETA desagertzea; horrez gainera, badu beste erronka bat, are garrantzitsuagoa: pertsona guztien artean gizarte adiskidetua, tolerantia, plurala, demokratikoa eta askea eraikitzea, eta Bake Kulturean eta Giza Eskubideetan oinarritua. Prozesu hori luze egiten da, nekeza, eta gizarteak –pertsonak zein gizarte zibileko erakundeek– parte hartu behar du, bakoitzak bere erantzukizunaren arabera.

Horretarako, beharrezkoa da ETA desagertzea, estrategia terrorista baztertzea, eta gatazkak konpontzeko elkarrizketa nahiz bide demokratikoak bakarrik erabiltzea; baina hori ez nahikoa. Gure ustez, beharrezkoa da ETAREN amaiera errazteko agertzen diren aukera guztiak instituzioek aintzat hartzea, baldin eta ETAK indarkeria guztiz eta behin betiko utzi badu. Etorkizunean halako prozesuak (halakorik gertatuz

gero) sinesgarriagoak izan daitezten eta arrakastarako berme handiagoa izan dezaten, horretan zerikusia duten instituzio eta eragileei eskatzen diegu bultza ditzatela Nazio Batuak gero eta biziago parte-hartzera Euskal Herriko gatazkak konpontzen eta bakea nahiz bizikidetzaz lortzeko erronketan.

Hori dela eta, UNESCO Etxeak, gizarte zibilak bakea lortzeko duen konpromisoaren adierazleetako bat den aldetik, hitza hartu eta bere jarduera esparruan proposamen hau sustatzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen du:

ADIERAZPENA

UNESCO Etxea, euskal erakundea eta era berean nazioartekoa, tokikoa eta globala, Giza Eskubide unibertsal eta banaezinen baloreetan oinarritzen da, 1948ko Aldarrikapen Unibertsalak⁹ zein Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea osatzen duten gainerako tresna arauemaile eta instituzionalek sustatzen eta defendatzen duten bezala, eta 1995eko Nazio Batuen Vienako Konferentzian¹⁰ definitu ziren bezala. Era berean, Bake Kulturaren printzipioetan oinarritzen da; UNESCOk, Bake Kultura Programaren bidez, zein NBEko Batzar Nagusiak, Bake Kulturaren inguruko Aldarrikapen eta Ekintza Planaren¹¹ bidez –UNESCO Etxearen parte-hartze bizia duena–, printzipio horiek sustatzen. UNESCO Etxeak gizarte zibilaren nazioarteko sarean parte hartzen du; honek Garapenerako era Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen Aplikaziorako Espainiako Elkarte (AEDIDH) eta *Cultura de Paz* Fundazioa ditu buruan, Giza Eskubideetatik Bakerako prozesu kodetzailea sustatzeko. UNESCO Etxeak Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzorde berrian gai horri buruzko zenbait iritzi aurkeztu ditu, bai ahoz zein idatziz¹².

Nazioartean aldeaniztasuna baztertzearekin batera, desberdintasun sozial handiagoak, ingurugiroaren jarraikako narriadura, kultur uniformizazioa

⁹ NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (1948). *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*
http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_DDHH.pdf

¹⁰ NAZIO BATUAK (1993). *A/CONF.157/23. Vienako Aldarrikapena eta Ekintza Programa*.
http://www.unhchr.ch/spanish/html/menu5/wchr_sp.htm

¹¹ NAZIO BATUAK. BATZAR NAGUSIA (1999). 53/243. *Bake Kulturaren inguruko Aldarrikapen eta Ekintza Programa*. http://www3.unesco.org/iycp/kits/sp_res243.pdf

¹² UNESCO ETXEA (2005). *Por la promoción del Derecho Humano a la paz*.
<http://www.unescoeh.org/dokumentuak/StatementCast.pdf>

UNESCO ETXEA (2007). *Global Campaign on the Human Right to Peace*.
<http://daccess-ods.un.org/TMP/2924088.html>

eta UNESCOren konstituzioak ezartzen dituen balio etiko unibertsalen galera gertatu dira. Hori dela eta, uste dugu guztiz beharrezkoa dela lanari ekitea.

Horrek guztiak printzipio, gomendio eta konpromiso unibertsal hauek euskal errealitatean erabiltzera bultzatzen gaitu, hurrengo hiru ardatz nagusien bidez:

1 OINARRIZKO BALDINTZAK: GIZA ESKUBIDEAK ETA FUNTSEZKO ASKATASUNAK

1. Pertsonen bizitzak arriskuan jartzen dituzten atentatuak bertan behera uztea.
2. Pertsonen, taldeen edo ondasun publiko zein pribatuen kontrako atentatuak, mehatxuak, estortsioak eta indarkeriaren beste edozein seinale uztea.
3. Jazarpenak eta kale erasoak desagertzea; horretarako, gertakari horiek gure gizartean sortutako arazoaren azterketa sakona egin behar da, ikuspegi sozialetik zein gizatiarretik.
4. Pertsonen eta ondasunen eginiko mehatxuak, estortsioak edo jazarpenak sustatzen dituzten deialdiak, komunikatuak eta propaganda bertan behera uztea. Intoleranteak edo bortitzak diren eta Giza Eskubideak urratzen dituzten jokabideak goستن edota sustatzen dituzten adierazpenak edo ekintzak ere bertan behera uztea.
5. Giza Eskubideekiko erabateko begirunea, arduratsua eta baldintzarik gabekoa, bereziki Torturaren Aurkako Batzordearen¹³ eta Nazioarteko Amnistiaren Txostenen¹⁴ gomendioak jarraituz, baita Torturaren aurkako Errelatore Bereziarenak¹⁵ –duela gutxi Arartekoak¹⁶ bildutakoak– ere.
6. Gobernuetako eta segurtasun kidegoetako agintaritzak eskudunen erantzukizun aktibo berezia. Etorkizunean, torturaren eta tratu txarren aurkako neurri prebentiboan alorrean Euskal Herrian burututako jarduerak baliagarriak aitortzea. Adibidez: atxilotze lekuetako bideokameren kasua.

¹³ <http://www.ohchr.org/spanish/bodies/cat/>

¹⁴ <http://www.es.amnesty.org/paises/espana/pagina/tortura-y-malos-tratos/>

Urteka eta herrialdeka sailkatutako txostenak ikusteko: <http://www.amnesty.org/ailib/aireport/index.html>

¹⁵ <http://www.ohchr.org/english/issues/torture/rapporteur/index.htm>

¹⁶ ARARTEKO (2004). *Arartekoak torturaren inguruan egindako adierazpen instituzionala*. <http://www.ararteko.net/webs/varios/torturaC.pdf>

7. Agintaritza judizial eta administratiboen erantzukizun aktibo berezia, tortura eta tratu txarretako kasuetan prebentzio, babes eta ordainketa bermatzeko. Justiziak bere funtzioak luzapenik gabe gara ditzan, beharrezkoak diren baliabideak eman ditzaten eskatzen diegu gobernuko arduradunei, baita behin-behineko espexeratzeko premiazko kasuetara murriztea ere.
8. Giza Eskubideak eta adierazpen askatasunarekin lotutako Oinarrizko Askatasunak sustatzea, errespetatzea eta besteek errespetatu ditzaten eragitea. Horrela, hedabideen kontrako egoerak ekidin nahi dira, juridikoki eztabaidagarriak izan daitezkeelako edota gizartean kezka larria sor dezaketelako; horretarako, estatu barruan zein nazioartean, eskubideen legez kontrako urraketa jasan dutenen babeserako eta, behar izanez gero, ordainketa eta kalte-ordainetarako baliabide eraginkorrak ematea.
9. Era guztietako biktimak errespetatzea, ohoratzea eta ordaintzea, eta arlo honetako nazioarteko estandar onenen buruan egotea. Era berean, ordainketa eta berrezarpen neurriak zilegitasunez jaso nahi duten biktimek, neurriok barne hartzen dituen babes judizial eragingarria izan dezaten defendatzea.
10. Memoria historikoa aitortzearen eta berreskuratzearen aldeko estatu politika egin dadin bultzatzea; horretarako, egiazko informazioa argitaratu egin behar da.

UNESCO Etxeak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- a. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren estandarren araberrako babes judizial eragingarria izateko eskubidearen alde, biktimek egiten dituzten aldarrikapenetan *laguntzea*, baita nazioarteko dimentsioan ere.
- b. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Ordezkaritzako Errelatoreekin zein nazioarteko beste erakundeekin Euskal Herriko eta Espainiako egoeraren inguruko eginkizunetan *elkarlanean aritzea*.
- c. Nazioarteko jarduera baliagarrien ezagutzaren bidez, tokiko instituzioei Giza Eskubideen arloko estandarrak hobetzen *laguntzea*.

2 BIZIKIDETZA BULTZATZEKO EKIMENAK

1. Mota guztietako prozesu politikoetan, hauteskundeetan edota beste edozein parte-hartze formatan, pentsamolde politiko guztiek parte har dezaten laguntzea, baldintza berdinetan eta legezko tresnen bidez, Giza Eskubideen eta gainerakoen Askatasunen esparruaren gutxienekoak errespetatzen dituzten bitartean.
2. Globalizazio prozesuez eta identitate kulturelez kezkatuta dagoen munduaren errealitatera egokitutako politika moduen inguruko eztabaida berritzailearen alde agertzea; izan ere, Euskal Herriko elkarbizitzarako zein Espainiako, Europako eta nazioarteko gainerako eremuetan –eskubide zibil, politiko, kultural, sozial eta ekonomikoei buruzko Nazio Batuen doktrina eguneratuz eta aplikatuz– artikulatzeko itun erabilgarriak ekar ditzakete politika modu horiek.
3. Munduko eta Europako eztabaida lekuetan zein Nazio Batuen eta Nazioarteko erkidegoaren sistemen barruko erakunde aldeaniztunetan nazioarteko euskal presentzia sustatzea.
4. Eusko Jaurlaritzan Gobernantza eta Gardentasuna¹⁷ garatu, eta arlo horretako nazioarteko itunen aplikazioa bultzatu, Europako eta nazioarteko estandar onenei jarraiki.
5. Administrazio Orokorrean, Justizia Auzitegietan eta Administrazioen kultur sustapenean, euskara eta euskal kultura bultzatzea eta ezarritakoa betetzea, erreferentziazko nazioarteko araudietan gomendatzen den bezala¹⁸.
6. Indarrean dauden estatutu eta konstituzioaren esparru legalaren ezarpenak arduraz betetzea, eskumenen lekualdatzeari eta horien baliabide ekonomikoei dagozkienak batez ere.
7. Gizartean, politikan eta nortasunean bestelako sentsibilitateak dituztenek, aniztasun konstruktibotik abiatuta, Herrialdearen aldeko ideiak eta lan egitasmoak elkartu ahal izateko espazioak sustatzea.

UNESCO Etxeak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- a Munduan zehar euskara eta hizkuntza ondare unibertsala *hedatzea*, eta hizkuntza aniztasuna sustatzea.

¹⁷ <http://www.transparencia.org.es/>

¹⁸ NACIONES UNIDAS. ASAMBLEA GENERAL. (2007). A/RES/61/266. Multilingüismo
<http://www.un.org/Depts/dhl/resguide/r61sp.htm>

- b. Euskal gizarteak Espainian duen parte-hartze politikoko moduetan eta aldeaniztasunean *berrikuntzak egitea*, eta akordioetara zein hitzarmenetara bideratutako kultura politikoa bultzatzea.
- c. Euskal Herrian dauden bestelako pentsamoldeek nazioarteko egitasmo konpartituetan parte hartzen duteneko espazioetako bat *izatea*.
- d. XXI. mendeko errealitatera eguneratutako eta egokitutako kategoria eta kontzeptu politikoak azterketa eta hedapena *bultzatzea*, kultur askatasunei eta mundializazioan duten instituzionalizazio politikoari dagozkionak batik bat.

3 GIZA ESKUBIDEEN, BAKEAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDEKO GAITASUNEN ERAIKUNTZA

1. Giza Eskubideetan eta Bake Kulturean oinarritutako Hezkuntza sustatzea. Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren alorreko euskal Ekintza Plana¹⁹ funts hartuta, eremu honetan elkar ulertzeko eta gutxieneko akordio zein ekintzetara heltzeko, talde guztiak ahaleginak egin ditzaten suspertzea, eta horrela, alderdiak aurrez aurre jartzean, Hezkuntzaren auzia euren interesen arabera erabil dezaten ekiditea.
2. Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzarako Elkarteen Topalekua sortu izana gorestea, eta tresna erabilgarri eta eraginkor bihurtu dezagun desio izatea.
3. Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzako nazioarteko erronka edo programetan euskal instituzioen eta GKEen parte-hartzearen alde egitea, batez ere UNESCOrekin, Giza Eskubideen Batzordearekin, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Goi Ordezkaritzaren Bulegoarekin eta Europako Batzordearekin lotutakoetan.
4. Bake, bizikidetzaren, begirune eta tolerantziatik egindako historiaren irakurketa komunerantz aurrera egitea; Estatuak dokumentazio iturrien mantentzea eta atzipen askea ziurtatu behar du.
5. Estatuak gerra zibilaren eta frankismoaren biktime mota guztiekiko erantzukizun instituzionala betetzea, egia, justizia eta

¹⁹ EUSKO JAURLARITZA. GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA (2007). *Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren alorreko euskal Ekintza Plana (2007-2009)*
<http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/>

ordainketarako eskubidearekiko errespetuaren bidez, hori gauzatzeko behar adina mekanismo eta prozedurak martxan jarri.

6. Adiskidetzarentz aurrera egitea. Adiskidetze hori ez da izango guztiari buruzko erabateko akordioa, axolagabetasunean oinarritutako bakea, gizarte bizi eta aktibo guztiek izan behar dituzten gatazken desagertzea, edo aukera zein proiektu politiko desberdinen ahultzea; hala ere, tolerantzia, begirunean eta elkarrekiko aberastean funtsatutako giroan, egitasmo politikoak kudeatzeko gutxieneko adostuak ekarriko dituen adiskidetzea izan behar du.
7. Giza Eskubideen eta Bakearen alorrean lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, elkarlana bultzatzeko zein euskal eta espainiar eremuko bakearen eta bizikidetzaren aldeko programa integratua lankidetzan jarduteko.
8. Ingurumenaren babesa eta kudeaketa iraunkorra erraztea, eta planetako baliabide naturalak baloratzea etorkizunerako bake osagai den aldetik.

UNESCO Etxeak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- a. Orainaldi demokratikoari zein iragan autoritarioari dagozkien memoria, adiskidetze, egia eta justiziaren arloko jardura baliagarriak *aztertzea eta hedatzea*, Nazio Batuen eta UNESCOren esperientzia oinarri hartuta.
- b. Euskal, espainiar, europar eta mundu eremuko giza eskubideen eta bakearen aldeko topaleku eta sareetan erakundeen eta eragileen koordinazioa *sustatzea* eta eginkizun horretan *parte hartzea*; adibidez, Nazioarteko Erakundearen Erreformatarako Kanpaina, UBUNTU, Euskadin indartzea.
- c. Bake Kulturarako ekarpen berritzailea den aldetik, identitate kultural eta politikoekiko begirune eta sustapenari buruzko hausnarketan *laguntzea*.
- d. Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako hezkuntzaren arloko *ekimenak gauzatzeko*, material, truke edota esperientzien hedapenaren bidez.

- e. Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren alorreko euskal Ekintza Plana²⁰ eta Elkartearen Topalekua *bultzatzea* eta horietan *parte hartzea*, jarduera baliagarrienak kontuan hartuta²¹.
- f. Espainiako bakearen eta giza eskubideen aldeko sareetan (adibidez, AIPAZ eta Giza eskubideen defentsa eta Sustapenerako Elkartearen Espainiar Federazioa, hurrenez hurren), gure parte-hartzea *indartzea*.
- g. Adiskidetzearen irakurketa komunean *aurrera egitea* eta, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak zein Nazio Batuen esperientziak ezartzen dituzten bermeen barruan, parte-hartze anitza eta tolerantzia defendatzea.
- h. Bakearen eta giza eskubideen arloan, erreferentziazko nazioarteko programetan euskal parte-hartzea suspertzen duten ekimenak *bizkortzea*.
- i. Ingurumenaren auzia politiketan eta bizimoduetan txertatzeko bidean, euskal gizartearen parte-hartzea eta trebatzea *bultzatzea*, bake kulturak barne duen osagaia delako.
- j. Giza garapen iraunkorra *bultzatzea*, bakeari dagozkion Milurtekoko Konpromisoak²² bereziki.

Bilbon, 2007ko irailaren 21ean.

²⁰ Ibidem

²¹ Proyecto Escuela: espacio de paz www.juntadeandalucia.es/averroes/ifp_nestor_almendros/eepaz/ieepaz.htm

²² <http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/ares552.html>

Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeko Kideak

Joaquín Achucarro

Daniel Innerarity

José Antonio Ardanza

Fèlix Martí

Txomin Bereciartua

Federico Mayor Zaragoza

Juana Carro

Ruper Ormaza (UNESCO Etxeko Lehendakaria)

**Mikel Mancisidor (UNESCO Etxeko
Zuzendaria)**

ERANSKINA

AURREKARIAK

Duela bi urte, 2005eko irailaren 21ean, UNESCO Etxearen Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen Biurteko I. Topaketa egin genuen.

Orduan, kultur aniztasunaren inguruko ADIERAZPENA²³ aurkeztu genion gizarteari; handik aurrera UNESCO Etxeak egin duen lanerako gida izan da adierazpena.

ADIERAZPEN hartan hartutako konpromisoen garapenean, UNESCO Etxeak Kultur Aniztasunaren arloan egin du lan bi urteotan zehar, eta hurrengo lorpenak erdietsi ditu:

- *Kultur adierazpenen aniztasunaren babes eta sustapenaren inguruko Konbentzioaren*²⁴ onarpenaren alde jardun dugu: Euskaditik hainbat baliabideren bidez adierazi diogu gure sostengua, eta nazioarteko beste erakunde eta GKEekin batera izan ginen 2005eko UNESCOren Batzar Nagusian, konbentzioa onartu zenean. Berrespenerako tresnak aurkezteko prozesuaren jarraipena egin dugu, eta 2007ko martxoaren 18an indarrean jarri zela ospatu genuen, eztabaida eta hausnarketa barne hartu zituen ekitaldi publiko baten bidez. Hartutako konpromisoarekin jarraiki, Nazioarteko Erakundeak, Estatuak, estatuaz kanpoko elkarteak, GKEak, enpresak, gizarte erakundeak eta pertsonak konbentzio horren ahalmen guztiez eta bere aplikazio eraginkorraz baliatzeko gai izan gaitezten lan egiten segituko dugu.
- 10 urtetan zehar egindako ikerketa lan biziaren ostean, “Hitzak eta Munduak”²⁵ Munduko Hizkuntzen Txostena bost hizkuntzatan (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta

²³ UNESCO ETXEA (2005). *Bakearen nazioarteko egunean, aniztasun kulturalari buruzko adierazpena. UNESCO Etxearen ekarpena.*

http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Declaracion_DivCultural_UNESCOEtxea.pdf

²⁴ *Op. cit.*

²⁵ MARTÍ, F. [et.al] (2005). *Words and Worlds. World Languages Review.* Clevedon (UK): Multilingual Matters.

MARTÍ, F. [et.al] (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena.* Bilbao: Servicio Editorial. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

MARTÍ, F. [et.al] (2006). *Un monde de paroles, paroles du monde. Étude sur les langues du monde.* Paris: L'Harmattan.

MARTÍ, F. [et.al] (2006). *Palabras y mundos. Informe sobre las lenguas del mundo.* Barcelona: Icaria.

MARTÍ, F. [et.al] (2006). *Мир языков. Обзор языков мира.* Elista (Kalmikya): Kalmyk State University.

errusiera) argitaratu dugu orain arte, eta Europa, Amerika eta Afrikako hainbat lekutan aurkeztu edota hedatu dugu.

Nazioarteko sareetan lana sakontzen jarraituko dugu: Red Linguapax-ekin gure elkarlana areagotuko dugu, eta Kultur Eskubideen inguruko Friburgoko Aldarrikapena (2007)²⁶ aurkeztu berri duen nazioarteko ekimenarekin bat egingo dugu.

Euskarak erronka globaletan parte har dezan laguntzen jarraituko dugu: Nazio Batuen eta UNESCOren txostenak hizkuntza honetan argitara daitezen lagunduko dugu, gainerako argitalpenek egiten dituzten mundu mailako aurkezpenekin bat egingo dugu, eta edukiak Nazio Batuetako web orri ofizialetan sartuko ditugu; era berean, Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekin batera, Euskal Herriko errealitate eleaniztunaren inguruko ikerketa bati ekin diogu.

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO-EHU Katedraren sorreran parte hartu dugu.

Hainbat urtetan beste eragileekin elkarlanean jardun ondoren, Bizkaia Zubia Gizadiaren Ondare izendatutako Euskal Herriko lehen tokia izatea lortu dugu.

Azkenik, biurteko topaketak egitea proposatu genuen, eta gaur, UNESCO Etxearen Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea eta Zuzendaritza Batzordea gaude hemen, Adierazpen honen inguruan eztabaidatzeko asmoz, Euskadin Bake Kulturaren aldeko hausnarketarako beste ekarpen bat izan dadin, baita gure erakundearen euskal gizarte eta nazioarteko komunitatearekiko konpromiso berria ere.

²⁶ FRIBURGOKO UNIBERTSITATEA. KULTUR ANIZTASUNAREN ETA ESKUBIDEEN BEHATOKIA (2007). *Kultur Eskubideen Friburgoko Aldarrikapena*.

http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Friburgo_Declaracion.pdf